

LAN-ESKAINZA ATARIAN: IKUSKATZAILE MEDIKUA (IRUN)

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA: MARTXOAREN 15ETIK 22RA, 15:00ETARA ARTE

LANPOSTUAREN DATUAK

Kodea: 511240/8

Deskribapena: Ikuskatzaile Medikua

Bitarteko funtzionario izendapena lanpostua bete arte. Proba bat gainditu behar da.

Urteko ordainsari gordina: 52.375,16

Saila: OSASUNA

Herria: IRUN

Kontratuaren hasiera data: Berehala

Aurrikusitako iraupena: Luzea

Funtzioak: Osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren arloan jarduerak gainbegiratzea eta laguntza-programak eta -aginduek kudeatzea; osasun-zerbitzuak ikuskatzea, bai eta osasun-zerbitzuen emaitzak ebaluatzea eta balorazio-txostenak egitea ere. Gainera, mediku-azterketetara joan beharko du.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

(Parte hartzeko baldintza orokorrak)

Titulu akademikoak: LIZENTZIATURA EDO GRADOA MEDIKUNTZAN

Euskararen ezagutza-maila: 3. HE (C1)

ESKAERAK AURKEZTEA

1. Interesdunek Internet bidez bete beharko dute eskabidea, helbide elektroniko honetan eskuragarri dagoen eredua betez: <https://www.ivap.euskadi.eus/enplegu-ivap/>
2. Eskabidea aurkezteko, beharrezkoa izango da nortasuna ziurtagiri digitalaren bidez egiaztatzea. Esteka honetan adierazten da nola eskuratu ziurtagiri digital bat: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>
3. Eskabidearekin batera, alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien kopia soila aurkeztu beharko da. Lan-esperientziaren kasuan, lan-bizitzaren ziurtagiriaren eta kontratuen kopia. Alegatutako baldintzek eta merezimenduek beteta egon beharko dute eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

PROZESUAREN BALORAZIOA

(Gehieneko puntuazioa: 14 puntu)

I. fasea

Eskatzaileek proba bat gainditu beharko dute. Probaren gehieneko balorazioa 8 puntu izango da. Eranskinean probaren gai-zerrendaren eta ezaugarrien berri ematen da.

II. Fasea

Proba gainditzeko dutenei baloratuko zaie:

1. azken 5 urteetan eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunetan izandako esperientzia, gehienez ere 4 puntu, 0,067 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
2. Master, diplomak eta Unibertsitateko titulu propioak, gorputzeko kaltearen balorazioarekin zerikusi zuzena badute. Gehienez 2 puntu.

PROZESUAREN GARAPENA

1. IVAPeko zuzendariak balorazio-batzorde bat izendatuko du. Batzorde horrek hiru kide izango ditu, eta proba eta merezimenduak baloratuko ditu, planteatutako zalantzak eta erreklamazioak ebatziko ditu, hautaketa-prozesua behar bezala bideratzeko behar diren erabakiak hartuko ditu eta hautatutako pertsonak proposatuko ditu.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, balorazio-batzordeak argitaratuko du hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda, baztertzeko arrazoiak adierazita, hala badagokio.

3. Prozesuan onartutakoei proba egiteko deia egingo zaie.

4. Proba egin eta gero, balorazio batzordeak honako hauek argitaratuko ditu:

- a) Probaren emaitza.
- b) Merezimenduak balorazioa.
- c) Esleipenduna.

5. Berdinketa hausteko irizpideak. Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek erabiliko dira:

- a) Proban emaitza hobea dutenen alde.
- b) Baloratutako esperientzia gehien dutenen alde.
- c) Tituluetan puntuazio altuena dutenen alde.
- d) Hezkuntza Sailaren urteko berdinketa hausteko letra, hautaketa-prozesuetarako.

[Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa](#)

ESLEIPENA ETA ADMINISTRAZIOAN LANEAN HASI

Prozesu horretan parte hartzeak ez du parte-hartzaileen aldeko inolako eskubide edo itxaropenik sortuko. Administrazio honetan zerbitzuak ematen hasten diren hautatutako langileak ez dira dagokion poltsan sartuko, eta ezingo dute mugikortasun-prozesuetan parte hartu. Era berean, prozesuaren emaitza ezaugarri bereko eskaintzetarako langileak hautatu behar direnean erabili ahal izango da, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskaintza esleitzen denetik zenbatzen hasita.

PARTE HARTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

1.- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, betekizun espezifikoek gain, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte beteta izatea eta erretiroa hartzeko legeko adina ez gainditzea.

b) Europar Batasuneko estaturen bateko nazionalitatea izatea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen zirkulazio askea aplikatu behar zaion estaturen bateko nazionalitatea izatea.

Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat (21) urtetik beherako ondorengoak izan edo adin horretatik gorakoak izan, haien kontura bizi badira.

c) Eman beharreko zerbitzuak normaltasunez egitea eragozten duen gaixotasun edo akats fisikorik ez izatea, lanpostua desgaitasunen bat duten pertsonen behar zehatzen arabera egokitzeko har daitezkeen neurriei kalterik egin gabe.

d) Diziplina-espediente bidez edozein administrazio publikotako edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organotako zerbitzutik banandua edo kaleratua ez izatea, eta ebazpen judizial bidez enplegu edo kargu publikoetarako desgaitasun absolutu edo berezirik ez izatea, funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-kontratuko langileen kasuan betetzen zituzten funtzioen antzekoak betetzeko, baldin eta desgaitua edo desgaitua izan bada. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaituta edo egoera baliokidean ez egotea, eta bere estatuan, baldintza berberetan, enplegu publikorako sarbidea eragozten duen diziplina-zehapenik edo zehapen baliokiderik ez izatea.

e) Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legeko kausaren batean sartuta ez egotea.

2.- HAEK egiaztatuko du parte-hartzaileek eskabidean betekizun gisa alegatutako titulazio akademikoa. Hala ere, pertsona horiek eskatutako betekizunak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala eskatzen zaienean.

Halaber, HAEK euskararen ezagutza egiaztatuko du Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Erregistroan titulurik ez duten pertsonak eskabidean alegatu beharko dute, eta tituluaren kopia eskaneatua aurkeztu.

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuz egingo da egiaztapena.

3.- Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira aurreko baldintza guztiak. Baldintza horiek prozesu osoan bete beharko dira.

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra), eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen gainerako araudia betez, jakinarazten da datu pertsonalak "hautaketa-prozesuen kudeaketa" izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

Tratamenduaren arduraduna: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Zuzendaritza.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko edo toki-erakundeetan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen beharrak aldi baterako betetzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea, bai eta parte-hartzaileei prozesu horien garapenaren berri ematea ere. Zehazki, parte hartzeko eskaeren kudeaketa, minusbalotasunagatik arrazoitutako probak egiteko egokitzapen-eskaeren kudeaketa, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratzea, proben kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa, prozesuekin lotutako errekamazioen eta baliabideen kudeaketa, eskatzaileek prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioaren kudeaketa, probetara bertaratzearen kontrola, ziurtagiriak ematea, prozesuei buruzko datu historikoak kontsultatzea, azterlanak eta estatistikak egitea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da 16/1983 Legearen 4. artikulua Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari esleitzen dizkion helburuak betetzeko.

Informazioaren hartzaileak: datuak Eusko Jaurlaritzako Funtzio Publikoko Zuzendaritzari lagatzea aurreikusten da, dagozkion lan-poltsak kudeatzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei ere lagatzea aurreikusten da, lan-poltsa propiorik ez dutenean. Kasu horretan, interesdunek berariazko baimena eman beharko diote lagapenari, hori egin ahal izateko.

Eskubideak: datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, bai eta informazio gehigarrian azaltzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza webgunean kontsulta dezakezu.

<https://www.ivap.euskadi.eus/hautaketa-prozesuen-kudeaketa/z16-h2home/eu/>

ERANSKINA: EZAGUTZA-PROBA



PROZEDURA	BITARTEKO FUNTZIONARIO IZENDAPENA
------------------	--

LANPOSTUA	IKUSKATZAILE MEDIKOA
	511240 /8

Eskaintza honetan jasotako lanpostua ezin izan da zerbitzu-eginkizunen prozeduraren bidez bete (2006ko maiatzaren 30eko Aginduak arautzen du prozedura hori), eta, beraz, lan-poltsetako langileei eskaini zaie, aldi baterako langileen hautaketa arautzen duen [2021eko urtarilaren 7ko Agindua](#)ren 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta ez da bete.

I.- EZAGUTZA-PROBA:

Lanposturako izangaiek proba bat egin beharko dute lanpostuaren eginkizun eta zereginekin zerikusia duten ezagutzak baloratzeko.

Proba mota: Proba idatzizkoa izango da, eta test-galdeketa, gaiak garatzea eta/edo kasu praktikoak ebaztea izan daiteke, III. atalean adierazitako gai-zerrendari buruz. Proba egiteko, hautagaiek ekarritako araudia eta bibliografia kontsultatu ahal izango dira. Proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa 4 puntukoa izango da.

Eguna: hautagai bakoitzari posta elektronikoz bidaliko zaio deialdia gutxienez 5 egun lehenago, eta bertan zehaztuko da proba noiz eta zer ordutan egingo den. Apirilaren lehenengo hamabostaldian egitea aurreikusten da.

Lekua: Osasun Saila, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza. Antso Jakituna hiribidea 35, Donostia.

Iraupena: 2 ordu gehienez

Hizkuntza: Proba euskeraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da. Hautagaiei deialdia jasotzean hobespena adierazteko eskatuko zaie.

Balorazio Batzordea: Prozesuan parte hartzen dutenei Batzordeko kideen nortasunaren berri emango zaie.

II.- LANPOSTUARI BURUZKO EDUKIAK

Zeregina:

Osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren arloan jarduerak gainbegiratzea eta programak eta laguntzarako aginduak kudeatzea, osasun-zerbitzuak ikuskatzea, bai eta osasun-emaizak ebaluatu eta balorazio-txostenak egitea ere. Gainera, mediku-azterketetan lagunduko du.

Eginkizunak:

A016.010 Osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren arloan balorazio-txostenak egitea

A016.013 Osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren arloan programak kudeatzea

A016.024 Osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren arloan laguntzarako aginduak kudeatzea

A016.025 Osasun-aseguramenduaren eta -kontratazioaren arloan jarduerak gainbegiratzea

A108.005 Osasun-zerbitzuak ikuskatzea

A108.015 Osasun-emaizak ebaluatzea

A108.016 Mediku-azterketetan laguntzea

Zereginak:

300064 Osasun-zerbitzuak aztertzea, dauden baliabideak, jardun-bolumena, irisgarritasuna eta erabiltzaileen gogobetetzea aintzat hartuta

300180 Galderei eta erreklamazioei erantzutea

300282 Bere jardun-eremuan jarduketak koordinatzea

300329 Beraren lan-arloaren berezko atazak koordinatzea eta gainbegiratzea

300599 Bere jardun-eremuari dagozkion gaiei buruzko txosten teknikoak egitea

301573 Gaixoen ezintasun-egoera kudeatzea

Eta, gainera, lanpostuari zein lanpostu horren kidegoari dagozkion eginkizunak betetzen dituzten zeregin guztiak.

III.- GAI-ZERREDA

1. Osasuna babesteko eskubidea eta Euskadiko osasun-sistema

- Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen I., II. eta IV. tituluak. 1-10, 11, 16, 19, 29 eta 30. artikulak.

2. Osasun-prestazio publikoak

- 1030/2006 Errege Dekretua, irailaren 15ekoa, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzuen erkideen zorroa eta hura eguneratzeko prozedura ezartzen duena 1.etik 6.era bitarteko artikulak eta 11. artikulua, II.etik V.era bitarteko eranskinak, VI. eranskina (1-3 paragrafoak), VII. eranskina (1,2,5,6,7 eta 8. paragrafoak), VIII. eranskina, IX. eranskina.

3. Euskadiko Osasun Sistema. Osasun Saila eta Osakidetza: egitura eta funtzioak.

- 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena. 20.etik 23.era bitarteko artikulua.
- 80/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena. 2.etik 6.era bitarteko artikulua, 8., 12., 14. eta 16. artikulua.
- 77/1997 Dekretua, apirilaren 8koa, Osasun Sailak osasun-zerbitzuak ituntzeko oinarriak ezartzen dituena. 2., 3., 7. eta 8. artikulua.

4. Ikuskaritza Medikoaren farmazia-bisa. Irizpide Orokorrak

- 618/2007 Errege Dekretua, maiatzaren 11koa, sendagaiak preskribatzeko eta emateko baldintzetarako erreserba bereziak bisa bidez ezartzeko prozedura arautzen duena.

5. Administrazioaren ondare-erantzukizuna. Osasun Saileko Ikuskaritza Medikoaren zeregina.

- Espainiako Konstituzioa, 106.2 artikulua.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, 32. artikulutik 37. artikulura.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 65. artikulutik 67.era, 91. eta 93. artikulua.

6. Gizarte Segurantzako lan-ezintasuna: aldi baterako ezintasuna; ezintasun iraunkorra eta motak.

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua. 82., 169.etik 196.era artikulua.

7. Aldi baterako ezintasun-egoeraren eta ezintasun iraunkorraren balorazioa.

- 625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa.
- ESS/1187/2015 Agindua, ekainaren 15ekoa, honako errege-dekretu hau garatzen duena: 625/2014 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, aldi baterako ezintasun-prozesuen kudeaketaren eta kontrolaren zenbait alderdi arautzen dituena, lehenengo hiru eta hirurogeita bost egunetan.
- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat. Escuela Nacional de Medicina del Trabajo Instituto de Salud Carlos III. 1. eta 2. kapituluak.

8. Gaixotasun muskuloeskeletikoen balorazio funtzionala.

- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat. Escuela Nacional de Medicina del Trabajo Instituto de Salud Carlos III. 20. kapitulua.

9. Gaixotasun kardiobaskularren balorazio funtzionala.

- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat. Escuela Nacional de Medicina del Trabajo Instituto de Salud Carlos III. 12. kapitulua.

10. Arnas gaixotasunen balorazio funtzionala.

- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat. Escuela Nacional de Medicina del Trabajo Instituto de Salud Carlos III. 14. kapitulua.

11. Gaixotasun psikiatrikoen balorazio funtzionala.

- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat. Escuela Nacional de Medicina del Trabajo Instituto de Salud Carlos III. 8. kapitulua.

12. Gaixotasun onkologikoen, oftalmologikoen, dermatologikoen eta abarren balorazio funtzionala.

- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat. Escuela Nacional de Medicina del Trabajo Instituto de Salud Carlos III. 5, 10 eta 19. kapituluak

Gaietan adierazitako erreferentziak bilatzeko laguntzak:

1.- EAEko araudia:

- Berriena:
<https://www.euskadi.eus/informazioa/euskal-autonomia-erkidegoko-araudi-sanitarioa/web01-s2osa/eu/>
- Gainontzekoa:
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/Azkena.shtml>

2.- Estatuko araudia:

<https://www.boe.es/buscar/>

3.- Lanerako ezintasuna baloratzeko gida, lehen mailako arretako medikuentzat, bigarren edizioa:

<http://gesdoc.isciii.es/gesdoccontroller?action=download&id=15/01/2016-440fa7054c>